

2017ko. DEIALDIA: IKERTALDE BERRIAK CIBER PATZUERGORA SARTZEKO DEIALDIA (ISCIII)

Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioak, Carlos III.a Osasun Institutuaren (ISCIII) bidez, deialdia egin du 2017. urteko laguntzak emateko, ikertalde berriak CIBER partzuergora sartzeko. Deialdia 2013/2016 aldiko Ekintza Estrategikoaren barruan dago.

http://www.boe.es/diario_boe/verifica.php?acc=Verificar&c=BOE-B-2017-25619

Interneteko helbidea: <http://www.isciii.es/ISCIII/es/contenidos/fd-investigacion/fd-financiacion/fd-convocatorias-ayudas-accion-estrategica-salud/acceso-solicitud-ayudas.shtml>

Deialdiaren xedea:

CIBER partzuergoa bultzatu eta sendotzea partzuergo horrek garatzen dituen zientzi programetara ikertalde gehiago sartuz. Aurkezten diren proposamenek jardura ikerketa mota hauekin izango dute zerikusia: oinarritzko ikerketa, ikerketa kliniko eta epidemiologikoa, eta osasun zerbitzu eta teknologi garapenarekin lotutako ikerketa arlo eta deskriptore hauetan:

1. Arnas eritasunei buruzko espezialitate arloa.
 - 1.1. Inflamazioa eta biriken birmoldaketa.
 - 1.2. Arnas gutxiegitasuna eta biriketako lesio akutua.
2. Diabetes eta gaixotasun metabolikoei buruzko espezialitate arloa.
 - 2.1. Ikerketa klinikoa eta klinika aurrekoa 1 motako diabetesean, immunoterapian edota tratamenduan aplikatutako teknologia berrietan zentratuta (pankrea artifiziala, glukosaren monitorizazio etengabea, adimen artifiziala, telemedikuntza).
3. Gaixotasun hepatico eta digestiboei buruzko espezialitate arloa.
 - 3.1.- Zelulen seinaleztapena birsorkuntza hepaticoan eta gibelego minbizian.
 - 3.2.- Hesteetako immunologia eta zeliakia.
 - 3.3.- Gene adierazpenaren erregulazioa inflamazioan eta minbizian.

Ikertaldeek bete beharreko baldintzak:

Ikertaldetzat joko dugu ikertzaile nagusi (taldeburu) baten inguruan bildutako ikertzaile multzo bat, baldin eta ikertzaileok espezialitate arlo homogeneo bat ikertzen aritu eta azken bost urteotan nazioko edo nazioarteko deialdietan finantzaturako ikerketa proiektuetan elkarrekin lan egin eta patenteen garapenean kontrastaturako kalitateko publikazioen erregistro bat badute.

Ikertaldeko kideztat jotzeko, ikertzaile bakoitzak egiaztatu behar du ikertzaile nagusiarekin gutxienez bi argitalpen/patente dituela eta nazioko eta nazioarteko deialdietako lehiaketetan finantzaturako ikerketa proiektu edo programa bat duela.

Eskaerak aurkezteko epeak:

Eskaerak 2017ko maiatzaren 3tik 31ra aurkeztu behar dira (15:00ak), biak barne.

Eskaera nola egin:

Ikertaldeak sartu nahi duen CIBERreko legezko ordezkariaren sinadura izan behar dute deialdi honetako eskaerek. Horregatik, eskaera bete baino lehen, komenigarri litzateke atxikitako CIBERrekin harremanetan jartzea jakiteko ikertalde berriak onartzeko prest dauden.

Apirilaren 18aren aurretik, Ikerketaren Arloko Errektoreordetzara igorri behar da (emaila: convocatorias.dgi@ehu.es) langileen **Excela**, **Ikerketaren webgunean** eskegitakoa (<http://www.ehu.es/eu/web/ikerketaren-kudeaketa/deialdiak-estatuko-deialdiak>), ekipoa berrikusteko, deialdian ezarritako betekizunen/bateraezintasunen arabera. Proposatutako langileek onartu ondoren, eskaerak elektronikoki beteko dira, ISCIIIren webgunearen bidez:

<https://says.isciii.es/comun/inicio0.aspx?ta=8&anio=2017>).

Aplikazio elektronikoak aukera ematen du eskariak grabatzeko, ziurtagiri elektronikoaz eta ziurtagiri elektronikorik gabe sartuaz. Aukeratutako sarbide mota edozein delarik, aurtengo **berrikuntza** da edizio honetan eskaria egin daitekeela ziurtagiri elektronikorik gabe (erabiltzaile izenez eta pasahitzaz sartuta) eta, eskaria sortzerakoan, **elektronikoki sinatzeko sortzeko aukera** hartzen bada **ziurtagiri elektronikoaz egin izan balitz bezala** ("Generar Solicitud Electrónica"). Ikerketaren arloko Errektoreordetzak **biziki gomendatzen du modalitate hau erabiltzea**, horretarako prestatutako menua baliatuta, eta behin betiko eskaria **2017ko maiatzaren 25a baino lehen** sortzea.

Guardar

Guardar y Salir

Ver borrador

Generar Solicitud Electrónica

Salir

Legezko ordezkariaren sinadura elektronikoa lortzearen, **eskaria aurkeztu ahal izateko nahitaez eta ezinbestean behar den bakarra**, convocatorias.dgi@ehu.es helbide elektronikora igorri beharko da mezu bat, **maiatzaren 25a baino**, non jasoko den eskaria sinadurarako sortua dela eta mezuari atxikiz:

- Sortutako eskari inprimakia
- Ikertzaile nagusiaren (eta, hala balegokio, IN kidearen) CVA-k, [CVN editoreak](#) automatikoki edo CVA zerbitzua eskainiko duen FECYT-en CVN arauan ziurtatutako edozein erakundek sortuta.
- Ikertaldearen historial zientifikoa eta teknikoa, honakoak jasorik: zein diren ikertaldeko kideak, ikertaldearen egitura, azken urteotako argitalpen, proiektu eta patenteen zerrenda.
- CIBER patzuergoaren espezialitate arloan sartzean ikertaldeak egingo dituen jarduketan memoria.
- Erakunde eskatzailea CIBERren barruan ez badago, legezko ordezkariaren adierazpen bat izango da, bertan konpromisoa hartuz, ordezkatzeko duen erakundearen izenean, ikertaldea hautatzen den kasuan, CIBERra sortzeko hitzarmenari atxikiko zaiola eta behin prozedura amaitutakoan haren estatutuak onartuko dituela.

GARRANTZITSUA: ISCIIIk laguntzak tramitatzeari dagokionean, a), b), c) eta d) dokumentuak ezin izango dira zuzendu, behin aplikazioan sartu ondoren. **Hiru dokumentu hauetako bat aurkeztu ez** edo **formulario arautuez besteko ereduetan aurkeztu bada**, eskaria **kanpoan** geratuko da onarpen tramitean.

Aplikazio telematikoaren bidez tramitatutako eskarien formularioek, erakunde eskatzailearen legezko ordezkariaren sinadura besterik ez dute beharko (CIBERreko legezko ordezkariaren sinadura Ikerketaren arloko Errektoreordetzatik kudeatuko da behin betiko eskera egin ondoren). Deialdiak, hala ere, eskatzen dio erakunde onuradunari proiektuetan parte hartzen duten gainontzeko pertsonen jatorrizko sinaduren egiazkotasuna eta gordailua egin dezan. Horregatik, prozesua amaitu eta gero, ahal denik eta lasterren bidali beharko zaio Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren deialdien atalari **eskariaren ale bat, non agertuko diren ikertzaile nagusiaren eta ekipoan parte hartzen duten gainontzeko kide guztien sinadurak**.

Ez da sinatuko aipatutako egun horren ondoren jasotzen den inolako eskabiderik; automatikoki **baztertuko da hautatze prozesutik**.

Informazio gehiago:

Hauek dira erakundearen (hau da, UPV/EHUren) datuak eskaria betetzeko:

- **IFK:** Q4818001-B
- **Helbide soziala:** Sarriena auzoa, zk.g., 48940 (Leioa)
- **Lege ordezkaria:** Jose Luis Martín González
- **Kargua:** Ikerketaren arloko errektoreordea

Komenigarria da laguntzaren gida eta ohiko galderen atala irakurtzea ISCIII-ren webgunean:

- http://www.isciii.es/ISCIII/es/contenidos/fd-investigacion/fd-financiacion/fd-convocatorias-ayudas-accion-estrategica-salud/2017/CB_17_GUIA_DE_AYUDA.pdf
- http://www.isciii.es/ISCIII/es/contenidos/fd-investigacion/fd-financiacion/fd-convocatorias-ayudas-accion-estrategica-salud/2017/CB_17_PREGUNTAS_FRECUENTES.pdf

Informazioa UPV/EHU:

Telefono zenbakia: 94 601 80 08

E-maila: convocatorias.dgi@ehu.es